

AZKUE SARI BANAKETA. B maila.

Egun on eta berri on guztioi:

Neure lehen hitzak izan bitez hona etorri zareten guztioi ondo etorria adierazteko. Ondo etorriak, beraz, Andres Urrutia jaun euskaltzainburua, Gorka Martinez eta Carlos Clemente BBKko arduradunak, kazetariak, sariketan parte hartu duten gazteen gurasoak eta, nola ez, sarituak izan diren neska-mutilak.

Laburzurrian ibiliko naiz ekitaldi honetan. Hitz bi baino ez gure epaile egitekoaz eta lan sarituen gainean. Lehen lehenik, ondo baderitzazue, narrazioekin hasiko naiz.

B mailako narrazio saritua oso estilo edo bide desberdinekoak dira. Hirugarren sariarekin sarituak *Guzizco Jaun noble* delakoak, abenturak ditu kontagai. Nafarroako Iruñea eta Aragoiko Zaragoza bitartean kristauek eta mairuek izango dituzte borroka eta erasoak. Pedro izeneko mezulari batek mentura ernagarriak biziko ditu. Eta noiz gertatzen ote dira gudu, eraso, ibilera eta mentura horiek? Ez dakigu baina XV. mendean edo lehenago izan beharko. Erroldan eta Karlomagnoaren garaian ere bai, beharbada.

Bigarren sarituak *Pareta bezain zuri* narrazioan eldarnioa eta errealitatea josiko ditu elkar-hizketa eta pentsamenduen bidez. Narrazioa ondo taxutua dago. Miren neskatilak, gela bateko lau hormaren artean esnatzen denean, aurre egin beharko dio errealitateari. Mirenek uste du auto istripu batetik bizirik atera dela, errealitatea, ostera, besterik da.

Lehen saria *Mendian gora* narrazioari ematea erabaki genuen epai-mahaikook. Amodio ixtorio edo hartu-emana poesia trinko eta indartsuz kontatua dagoelako. Zein da hari nagusia? Bizikleta gainean pedalei eragiten diela bidaiari batek bere amodioa aztertuko du modu harrigarrian. Esaldi indartsuek eta ondo josiek irakurlea konkortzeko moduan uzten dute. Badu ipuinak filosofia, baina batez ere poesiaren garra eta indarra dario hitz guztietatik.

Beste tankera bateko idazlana, luzea bezain landua da *Charles Holmes eta Pergamoko bitxiak*. Lan ederra delako uste dugu merezi duela argitaratzea.

Poesiari dagokionez, esan dezagun hirugarren saria *Beti* olerkiak izan duela. Poema luze honetako hasierak maitasun-poema baten eitea du. Maitasun poema

bat *Zu* bati egiten diolako erreferentzia, baina poeman sartu ahala gogoeta-mundu bati egiten dio bide.

Bigarren sariak *R.I.P. Poesia* izenburua du. Lan honek poesiaren heriotza du gai. Poesia hil dela edo hil dutela iragartzen du. Baina iragarpen hau, jakina, modu poetikoan eginda dago. Horixe da, besteak beste direla, poema honek duen grazia.

Lehen saria *Hego haizea* lanarentzat da. Hego haizeak hitz egiten du poema honetan lehen pertsonan. Poema trinkoa eta borobila da, bere xalotasun eta lautasunean enkantu handiz jantzia.

Pentsatu dugu, azkenik, argitaratzea *Seme soldaduak amari*, lan polita delako.

Bilbon, 2009ko martxoaren 16an
Jabier Kaltzakorta